

BESTELAKO XEDAPENAK

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1397

36/2018 EBAZPENA, otsailaren 1ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuren Giza Baliabideetako zuzendariarena, zeinaren bidez behin-behinean betearazten baita 246/2017 Epaia, irailaren 28koa, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiak garapen profesionala dela-eta emana.

Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiak garapen profesionala dela-eta irailaren 28an emandako 246/2017 Epaia ikusita, eta ebazpen judizial horri dagokion administrazio-espeditentea aztertuta, honako aurrekari hauek aplikatzen dira:

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Osakidetzako zuzendari nagusiaren abenduaren 29ko 1930/2011 Ebazpenaren bidez, 2011ko ekitaldirako garapen profesionalaren maila aitortzeko ohiko deialdiko baldintzak, eskabideak, ebaluazio-prozedura eta maila-esleipena arautu ziren, Osakidetzaren menpeko zerbitzu-erakundeetako profesionalentzat.

Bigarrena.– Osakidetzako zuzendari nagusiaren abenduaren 29ko 1931/2011 Ebazpenaren bidez, haren aplikazio-eremuan dauden langileen garapen profesionalaren maila ebaluatze eta esleitzeko prozedura, baldintzak eta eskabideak arautzen dira.

Hirugarrena.– 1930/2011 eta 1931/2011 ebazpenak 2012ko apirilaren 17ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ziren, eta orduan hasi ziren Osakidetzaren profesionalek garapen profesionalaren mailak eskatzeko epeak. Epe horiek bukatu zirenean, blokeak ebaluatze prozesua hasi zen: A Blokea (jarduera eta jarduna), B Blokea (curriculumeko meritua) eta C Blokea (inplikazioa eta konpromisoa).

Laugarrena.– Ebaluazioen emaitza zerbitzu-erakundeen ebaluazio-batzordeetan landu zen, eta bertan, garapen profesionalaren mailen esleipen-proposamenak onartu ziren eta 2013ko lehen seihilekoan garapen profesionaleko batzorde korporatiboetara bideratu ziren, aztertu eta baloratu zituzten.

Bosgarrena.– Osakidetzako zuzendari nagusiaren maiatzaren 8ko 558/2014 Ebazpenaren bidez erabaki zen bertan behera uztea abenduaren 29ko 1930/2011 eta 1931/2011 ebazpenei dagozkien garapen profesionalaren ohiko eta ezohiko deialdiak, bai eta garapen profesionalaren aitortpen berriak ere.

Seigarrena.– Ebazpen horren kontra, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuten Euskadiko Sendagileen Sindikatuak, Amaia Mayor Liaño andreak, CCOOren Euskadiko Konfederazio Sindikalak, ELA sindikatuak, Ezker Sindikalaren Konbergentzia-ESK sindikatuak, Natalia Hidalgo Freire andreak eta Jose Ignacio Martínez Ortega jaunak. Ondorioz, 29/2015 prozedura laburtua sortu zen, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegian bideratu zena.

Zazpigarrena.– 2017ko irailaren 28an, prozedura horretan 246/2017 Epaia eman zen, eta bertan, partez onartu zen administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, honela: «abenduaren 29ko 1930/2011 eta 1931/2011 ebazpenen bidez deitutako garapen profesionalaren deialdian parte hartu duten Osakidetzaren profesionalen eskubideak onartzen dira, eskubidea baitute garapen

2018ko martxoaren 15a, osteguna

profesionalaren mailaren aintzatespen-deialdiak legez ezarritako bideei jarraikiz ebatz daitezzen, kasuan kasuko mailak esleitu arte, eta Administrazio demandatua kondenatzen da garapen profesionaleko prozedurekin jarraitzera, guztiz burutu arte eta partaide bakoitzari dagokion maila esleitu arte, ondorio ekonomikorik gabe».

Zortzigarrena.– Prozedura judizial horretako alde demandatzaileetako batek epaia behin-behinean betearazteko eskatu du, eta horren ondorioz, Epaitegiak 243/2017 autoa eman du irailaren 18an; auto horren bidez adostu da epaia behin-behinean betearaztea, eta Osakidetzari agindu dio «garapen profesionalaren mailaren aintzatespen-deialdiak legez ezarritako bideei jarraikiz ebatz daitezzen, kasuan kasuko mailak esleitu arte, eta Administrazio demandatua kondenatzen da garapen profesionaleko prozedurekin jarraitzera, guztiz burutu arte eta partaide bakoitzari dagokion maila esleitu arte, ondorio ekonomikorik gabe».

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Osakidetzaren Giza Baliabideetako zuzendariak du epai judiziala betearazteko ardura, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zuzendari nagusiaren maiatzaren 14ko 514/1999 Ebazpenaren bidez egotzi zaizkion eskumenei jarraikiz.

Aipatutako ebazpenean adierazten denez, Osakidetzaren Giza Baliabideetako zuzendariari eskuordetzen zaio Osakidetza demandatua denean epaiak betearaztea, hala Ente Publikoaren zerbitzu-erakundeetan lan egiten duten pertsonen nola Erakunde Zentraleko langileei dagokienez.

Bigarrena.– Administrazioarekiko auziez arduratzen diren epaitegiek eta auzitegiek beren epaiak betearazteko eskumena dute; prozesuko alderdiek, berriz, epai eta ebazpen horiek bertan adierazten den moduan bete behar dituzte, hala xedatuta baitago Administrazioarekiko auzietako jurisdikzioa arautzen duen 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103.1 eta 103.2 artikuluetan.

Hirugarrena.– Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiak 29/2015 prozedura laburtuan emandako 246/2017 Epaia eta epaitegi horren 243/2017 Autoa direla-eta, Osakidetzak du epaia behin-behinean betearazteko ardura.

Horrenbestez, garapen profesionalaren maila aintzatesteko izapideekin legez ezarritako bideetatik jarraitu beharra dago, guztiz burutu arte, partaide bakoitzari dagokion maila esleituz, ondorio ekonomikorik gabe.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Garapen Profesionaleko Batzorde Korporatiboen osaketa eguneratzea, batzordekideak izendatuz, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Bigarrena.– Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiak irailaren 28an emandako 246/2017 Epaia behin-behinean betearaztea; epai horren bidez onartzen da abenduaren 29ko 1930/2011 eta 1931/2011 Ebazpenen bidez deitutako garapen profesionaleko deialdian parte hartu duten Osakidetzako langileek eskubidea dutela garapen profesionalaren maila aintzatesteko deialdiak legez ezarritako bideei jarraikiz ebatz daitezzen, kasuan kasuko mailak esleitu arte, ondorio ekonomikorik gabe.

Hirugarrena.– Epaiaren behin-behineko betearazpen hori Osakidetzak gauzatuko dituen ekin-tza hauetan oinarritzea:

1.– Garapen profesionaleko batzorde korporatiboei deitzea eta aurkeztea deialdiaren emaitzak eta erakundeek proposatutako mailak, dagokien batzordean landu ditzaten, eta Zuzendaritza Nagusiari aholkularitza ematea.

2.– Osakidetzaren Giza Baliabideetako Zuzendaritzaren ebazpen baten bidez agintzea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila esleitutako garapen profesionalaren mailen behin-behineko zerrenda, eta mailen behin betiko esleipena egin aurretik kasuan kasuko administrazio-izapideekin jarrai dadila ezartzea.

3.– Zuzendaritza Nagusiaren ebazpena ematea, garapen profesionalaren mailen behin betiko esleipena egiteko, ondorio ekonomikorik gabe.

Laugarrena.– Ebazpen honetan xedatutakoaren eraginetik kanpo geratzen diren gainerako egintzek eta izapideek bere hartan jarrai dezatela agintzea.

Bosgarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, bai eta Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiari jakinaraztea ere, berak baitu epaiaren betearazpen-izapideetan sortzen diren gaiak ebazteko ardura.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko otsailaren 1a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendaria,
JUAN CARLOS SOTO PÉREZ.